EEEL (LROE). Eragiketa Ekonomikoen Erregistro Liburu digitala da. Guraso elkarteak bertan erregistratu behar ditu fakturak.

TicketBAI. Salmenta-fakturetan agertzen den QR kodea da. Kasu batzuetan baino ez da nahitaezkoa.

DIRU-SARREREN KUDEAKETA (Guraso elkarteak jasotzen duen dirua)

Jarduera	TicketBAI	EEEL	Oharrak
Bazkideen kuotak	**Ez**	**Ez**	Elkartearen berezko jarduera da.
Dirulaguntzak eta dohaintzak	**Ez**	**Ez**	Zerbitzuen salmentatik kanpoko diru-sarrerak dira.
Loteria	**Ez**	**Ez**	Dohaintzatzat hartzen da.
Ogasunaren arabera salbuetsita dauden jarduerak (eskola-kirola, tailerrak, eskolaz kanpoko jarduerak, irteerak)	**Ez**	**Ez**	**SALBUESPENA:** Familia berak urtean 1.000 € baino gehiago ordaintzen badu, urtarrilean urteko idazpena egin behar da.
BEZa duten salmentak (txosnak, kamiseten edo materialaren salmenta)	**Bai***	**Bai**	*TicketBAI erabiltzeko betebeharretik salbuesteko, bi baldintza hauek bete behar dira. • Urtean 15 egun baino gutxiago. • Urteko diru-sarrerak 50.000 € baino gutxiago. Salbuespena eskatu behar da. Salmentak EEELean erregistratu behar dira, eguneko guztizkoari dagokion idazpen bakarra eginda.

***Betebehar horiek faktura dagoenean soilik aplikatzen dira.**

GASTUEN KUDEAKETA (Guraso elkarteak ordaintzen duena). Zer erregistratu behar da EEELean?

- **ERREGISTRATU BEHARREKOAK.** Hornitzaileen BEZdun fakturak (eskola-materiala, ekipamenduak, eskolaz kanpoko jarduerak, autobusak eta abar).

- **ERREGISTRATU BEHAR EZ DIRENAK**
  - Horniduren eta zerbitzuen ordainagiriak (telefonoa, AAko, Canvako edo Inikako hileko kuotak eta abar).
  - Aseguruak eta banku-gastuak.
  - Nominak eta Gizarte Segurantzako ordainketak.
  - Guraso elkartearen IFK agertzen ez den erosketa-tiketak.
  - Ikasleen prestakuntzari dagozkion BEZik gabeko fakturak. **Guraso elkarteak hornitzaile berari urtean 1.000 € baino gehiago ordaintzen badio (adibidez, karateko eskolaz kanpoko jardueragatik), hurrengo urteko urtarrilean idazpen bat egin beharko du EEELean, zenbateko osoa jasotzeko.**

EEEL urte osoan dago zabalik. Idazpenak hiru hilean behin egin ditzakezue, edo faktura guztiak bildu arte itxaron. Aukeratu erosoen zaizuena.

Gogoan izan, gainera, 1.000 €-ko muga gainditzen duten jarduera salbuetsien urteko idazpena urtarrilean egin beharko duzuela.

GOMENDIOA: Jasotako faktura guztiak gordetzea gomendatzen dizuegu (guraso elkartearen IFK dutenak).

Gida honetako gomendio eta jarraibide guztiak Ogasunak BATUZ sistemaren bidez EEELean egitea eskatzen duen erregistroari buruzkoak dira. Gainerako dokumentazioa (tiketak, nominak, BATUZen erregistratu behar ez diren fakturak eta abar) elkartearen kontabilitaterako gorde behar duzue.

Zalantzarik baduzue, jarri gurekin harremanetan.

Posta elektronikoa bige@bige.eus | Webgunea bige.eus

Gida hau informatzeko da. Kasu zehatzen inguruan, galdetu guri.